

1. Euskoeuropeismoa <atx-landa...> Indoeuropeismoa


Aurkezpena

Euskal Herriak mendebaldeko Europaren sorreran izan duen garrantzi historikoa erabat finkatua gelditu da azken urteotan, genetikaren bi ekarpenei esker. Batetik, horko herri asko (Irlanda, Eskozia, Gales, Ingalaterra...), hein handi batetan, glaziazio ostean hemengo aterpetik (Kantabria - Euskal Herria - Akitaniatik) joandako gure arbasoen ondorengoak direla. Bestetik, Joxemiel Barandiaranen teoria baieztatu da: euskal etniak gure lurraldean gutxienez 8.500 urte daramatzala zioen berak baina, horrez gain, epe hori 15.000 urtetara handitu da.

Bitartean, inbasio indoeuroparren datuei buruz zalantza berriak zabaldu dira. Zenbait genetistek esandakoaren arabera, inbasio indoeuroparrak ustez baino berantiaragoak izan dira (orain 4.500 urte), eta Anatoliatik baino, errusiar estepatik etorri zirela ondorioztatu dute. Eta Auñamendien edo Pirinioen mendebalde honetara heldutako 'lehen ez-euskaldun' horiek, kelta indoeuroparrak, kristo aurreko 400-600 urte inguruan etorri omen ziren, genetista batzuen arabera. Oteitzak esan bezala, guk beraien historia ñimiñoa baino, aurrehistoria zabal eta oparoa dugula sustrai kontuan hartu behar dugu.

Genetikak emandako datu berri hauek ez dira orain arte euskal hizkuntzalaritzara eraman, nahiz eta Europan hori kontuan hartzen hasi diren zenbait hizkuntzalari egon badagoen, Theo Vennemann, esate baterako. Horrez gain balio heuristikoa kendu zaio euskerari, hau da, teoria desberdinak proposatzeko eta berraztertzeko balioa. Adibidez, hitz erro, hitz edo egitura bat berdintsua denean euskeran eta zenbait hizkuntza indoeuroparretan, indoeuroparrari onartzen zaio iturria, eztabaidarik gabe, hipotesi alternatiboen kontrasterik gabe. Beraien historia ñimiñoak gure aurrehistoria zabalaz zapalduz, berriz ere.

Euskalari akademiko ausarten etorreraren esperoan, dena den, badago zer aldarrikatu euskaltzaleen ekarpenetan. Adibidez, indoeuroparrak beretzat dituen erro asko eta asko, zaharragoa den euskeran oso zabaldua izatean, zalantza betetako testuinguru baten aurrean jartzen gaituzte. Eremu askotan, toponimia eta hitz familia zabalak euskeran baditugu, eta familiarik gabeko kasu isolatuak hizkuntza indoeuroparretan badira, nola da posible euskerara indoeuroparretik etorri izana? beste norantzak askoz zentzu gehiago du.



*Euskeraren balizko zabalera paleolito garaian
Jon Nikolas*



*Europa glaziazio garaian
Irudia: anthropos.mforos.com*

Adibide xume bat: *(h)aitz-atx* lanabesen sendi osoa dugu euskeran. Latinean, aldiz, *asciola* delako hitz soltea. Hipotesi indoeuroparraren arabera, bai bitxia! euskal aizkora *asciolatik* dator eta, inplikazioz, beste haitz sendi guztia ere, nahiz eta sendi hori hizkuntza indoeuroparretan ez existitu. Askoz zentzu gehiago du honakoak: latineko *asc-iola* eta indoeuroparren beste '*adz-atx*' adibideak euskeratik edo Europa mendebaldeko hizkuntza baskonikoen sendi zabal batetik etortzea, atx-aitz forma eta sendia izan omen zutenak.

Bestetik, ez dugu ahaztu behar, paleolito garaian eta ostean ere, Asturiasko kobetatik Alemaniako hegoaldeko kobetaraino, ehiztari-biltzaile komunitateen arteko harremana oso handia izan zela, arkeologiak frogatu digun moduan. Toponimia, hitz sendiak, egitura sintaktikoak, eta abar, berrirakurtzeko garaian geundeke. Hainbat xehetasun dago kontuan hartzeko; adibidez, koba paleolitikoen inguruko toponimiak (Lascaux, Cromañoneko kobak...) euskal toponimoz beteta daude, baita beste lurralde askotan ere. Beraz, glaziazioaren ondoren hango biztanleak Europa osora zabaldu zirenean, genetikak frogatu bezala, irteera egunetik bertatik bere hizkuntza maitatua ahaztuko zuten? eta populaziorik gabe zeuden guneetara hizkuntzarik gabe joan? Zentzuzkoa da Europa euskeraz eta hizkuntza baskonikoez busti zela pentsatzea.

Ondorioz, erro eta hitz asko non sortu ziren, norik zabaldu zituen eta jatorriz norenak diren baieztatzea, gure uste apalean, ez da erraza. Eta hemen *tenisaren paradigma* aipatu behar dugu. Nazioartean kirol ingelestzat daukate baina Jose Maria Bellidok proposatu zuen moduan Iparraldeko joko garbian oinarritutako aldaera bat baino ez litzateke izango. Izan ere, tenisean sarearen altuera, bat dator guztiz joko garbian erabiltzen denarekin eta frontoietako aurreko aldeko txapekin. Horrez gain tenisean jolasteko ezinbestekoa den "xarea" ere hor daukagu, baita beste zenbait kontu ere: zenbatzeko sistema, zelaiaren zabalera, sake eta pasaren arteko aldea....Bellidok zioenez, Frantziako eta Nafarroako errege-erreginek Iparraldetik Parisko gorteetara eraman zuten, han zabaldu zen eta handik hartu omen zuten ingelesek. Arau desberdin batzuk jarri eta mundutik hedatu zuten geroago, euren kirola balitz bezala.



Tenisaren paradigma: jatorriz euskal kirola izan daitekeena baina ingelestzat hartutakoa

Indoeuropeismoaren proposamen askorekin tenisaren antzeko zerbait gertatu ote den susmoa dugu, hau da, jatorriz euskal hitzak hartu zirela eta horietako batzuk hedatu zirela European zehar. Eta gaur egun, haien ondorengoek hitz horiek haientzat hartu nahi izatea. Bitxia da, adibidez, indoeuropeismoaren teoriaren bultzatzaileen gehien-gehienek euskera ez ezagutzea, ez aipatzea eta ikertu nahi ez izatea, nahiz eta gutxienez 15.000 urtez, bere milaka aldaerekin bada ere, European iraun duen hizkuntza "bakarra" izan seguraski.

Eta argi geratu behar da euskal hiztatz hartzeak ez duela esan nahi gaur egun Euskal Herrikoztat ditugunik, baina bai guk hizkuntza indoeuoparrek baino askoz lehenagotik –batzuk paleolito garaitik agian- erabiltzen ditugula.

Horregatik, indoeuropeismoaren teoriarekin batera euskoeuropeismoaren teoria ere eraiki behar dugula uste dugu, eta, horretan aritzeko, maiatzaren 9an Euskeraren Jatorriaren X. Biltzarra egingo dugu. Bertan, erro hauek ikuspegi anitzetatik ikertu dituzten eta zenbait lan argitaratu dituzten hizlariak izango ditugu Zestoan: Eñaut Etxamendi, Mikel Urkola, Felix Zubiaga, Jabier Goitia eta Jon Nikolas izango ditugu goizeko saioan. Bost ikerle hauek, zenbait erro oinarri hartuta, horiengandik atera dezakegun informazio etimologikoaren berri emango digute.

Arratsaldean Ekain kobako erreplika bisitatu eta Oteitzari buruzko ikuskizun bat izango dugu *Una filologia para nuestro Preindoeuropeo* argitalpenaren 20. urteurrenean. Oteitzaren lan hau mugarrria izan zen bere garaian, paleolitoaurreko euskal mundu ikusketari dagokion garrantzia itzuli ziolako eta euskal hizkuntzalaritzak ikuspegi hori gabe aurrera ez duela egingo proposatu zuelako.

Ondoren Antonio Arnaiz Villenak Mediterraneo inguruko hizkuntzen arteko harremanez egingo du hitz, Nerea Rementeriak bere aitak sortutako semantismo literalaren teoriaren berri emango digu, euskeraren eta beste hizkuntzen sorrerantz begira dagoena, eta Luis Azkonak iberiera dezifratzeko egin dituen ikerketak eta bere liburuaren azken bertsioa ezagutaraziko dizkigu.

Biltzarra amaitzeko Miguel Thomson ikerlariak, Iruña-Veleiaren ikerketan metodo zientifikoa baliatuz, grafitoak seguruenik egiazkoak direla ondorioztatu daitekeela azalduko du. Izan ere, aurkitu zirenetik faltsutzat emandako ebidentzia asko eta asko garai erromatarreko beste indusketetan edo bazeuden –nahiz hemengo adituek ez jakin- edo agertzen ari dira azken 5 urte hauetan.

Atzera begirako euskeraren ikerketa honetan etorkizunera begirako ildoren bat ere izango da. Felix Zubiagak esaterako, patriarkalismoak hizkuntzen aldaketetan izugarrizko garrantzia izan zuela azalduko du eta, gizakiok bizirauteko, gizateriaren eta hizkuntzen sorreran egon zen amaren mundu ikuskera eguneratu bat behar dugula proposatuko du.

Euskeraren Jatorria Elkarte